

14. DONOSTIA-HONDARRIBIA TALAIA BIDEA 2026

ARAUDIA

FORTUNA KIROL ELKARTEAK DONOSTIA-HONDARRIBIA “Talaia Bidea” mendiko lasterketaren 14. edizioa antolatuko du **2026ko martxoaren 22an**, 30,8 kilometroko luzerarekin. 2008eko martxoaren 22a baino lehen jaioetako edonork parte har dezakeelarik, Federazioaren zigorrik izan ezean. Gehieneko parte hartzea bostehunekoa izango da.

1.- IZEN EMATEA

Nola eman izena: Internet bidez www.cdfortunake.com , izena ematea momentuan egingo da, **ez da zozketarik izango. Izen-ematea urtarrilaren 16ean goizeko 10etan irekiko da eta 500 izen emateetara mugatua egongo da.**

Behin izen-emateak amaitzean itxaron zerrenda irekiko da.

Gutxienez 10 izen emate dituzten pertsonek izen ematea ziurtatuta izango dute urtarrilaren 7tik 13ra.

Izen emateko kuota: MENDI FEDERATUAK, 40,00 euro, MENDI FEDERATU GABEAK 43,00 euro.

Autobusak 5 euroko kostua izango du eta derrigorrezkoa izango da izena emanda egotea.

2.- DORTSALAK JASOTZEA

Dortsalak **Garbera Merkatal Zentroan dagoen Forum Sport dendan** banatuko dira **martxoaren 16tik 21era** (dendaren ordutegia 10.00etatik 22etara). Froga egunean, irteeran, Katalunia Plazan (Gros, Donostia) 8:00etatik 9:15etara. Oharra: Dortsala jasotzean mendi federatuek txartela erakutsi beharko dute, egin ezean aseguruaren 3 euroak ordaindu beharko dira. Izena emandako guztiek dortsala, txip-a eta lasterketako dokumentazioa jasoko dute.

3.- MAILAK:

- EMAKUMEZKOAK: seniorrak(18 eta 40 urte bitartekoak) eta beteranoak (41 urte baino gehiago)
- GIZONEZKOAK: seniorrak (18 eta 40 urte bitartekoak) eta beteranoak (41 urte baino gehiago)

Lasterketa eguneko urteak hartuko dira kontutan.

4.- DORTSALAK

Dortsala bularrean eraman behar da, ikusgarri, tolestu gabe eta publizitatea ezkutatu edo aldatu gabe.

5.- EZIN PARTE HARTZEA

Edozein arrazoi dela eta baja ematea eskatu dezakezu lasterketa baino HIRU aste lehenago arte 6 euroko erretentzioarekin (dortsalak prestatzen hasten den momentua).

Ziurtagiri mediku bat edukiz gero kopuru osoa bueltatuko da, epea aste bete lehenagokoa izango da, momentu horretan dortsalak banatzen hasten bait gara.



FORTUNA
kirol elkarte
club deportivo

6.- IZEN ALDAKETA.

Aurten izen aldaketa egitea posible izango da. Rockthesport plataformaren bidez egingo da bakoitzaren izen emate datuen atalean.

Aldaketa horiek antolakuntzak kontrolatuko ditu eta, zerbitzu hori behar ez bezala erabiltzen bada, deskalifikazioa eta etorkizuneko partaidetza-debekua ezarriko dira.

Norbaitek beste pertsona baten dortsalarekin parte hartuko balu, deskalifikatua izango da eta ezingo du Donostia-Hondarribia Talaia Bidearen beste edizio batean parte hartu.

Zigorra bi korrikalariei, uzten duenari eta korrika egiten duenari luzatuko zaie.

7.- DENBORAREN KONTROLA.

Frogaren kronometrajea KRONOAK bitartez egingo da.

8.-PASAIKO PORTUAREN ZEHARKALDIA

Pasai San Pedro eta Pasai Donibane arteko txalupan egingo den ibilbideak ez du denborarako kontatuko, ontziralekueetatik gertu alfonbra irakurleak jarriko dira horretarako. San Pedrotik lehenengo txalupa bi baldintza hauetariko bat ematen denean aterako da: 1) Lehenengo atleta iristen den momentutik minutu bat pasatzen denean. 2) 30 atleta txalupan igotzen direnean.

Gainontzeko txalupak, gutxi gora behera, bi minutuero irteten joango dira. Emakumezko lehenengo 6 lasterkariak lehentasuna izango dute txalupara ahalik eta azkarren igotzeko.

Hesi sistema batek ontziralekueetara ailegatutako ordena ontziratzearen berdina izatea bermatuko du.

Lasterkariak antolakuntzako pertsonalaren instrukzioak jarraitu beharko dituzte ontziratze eta ontzitik irteteko momentuan, egin ezean deskalifikatuak izango dira.

9.- IRTEERA

Irteera goizeko 9:30tan Katalunia Plazan (Gros) izango da

10.- MOTXILEN GARRAIOA

Lasterkariak beren arropa poltsa itxietan gorde ahal izango dituzte, irteeraren ondoan egongo den kamioi batean, honek Hondarribiko helmuga ingurura eramango ditu, bertan dortsala erakutsiz berreskuratuko dira

11.-ANOA POSTUAK

Sei edari-postua izango dira : Km 7, 12, 16, 20, 24, 27, horietatik hiru solido, 7, 16 eta 27. Helmugan anoa postu likidoa eta solidoa. Edalontziak postuan ezarritako mugetan utzi beharko dira. Muga horretatik kanpo hondakinik botaz gero korrikalaria deskalifikatua izango da.

12.-KONTROL ITXIERA

14:00tan helmuga kontrola itxi eta lasterketa bukatutzat emango da.

13.-DENBORA PASOAK ETA NAHITAEZKO ERRETIRATZE PUNTUAK

Lau denbora limite eta nahitaezko erretiratze puntuak ezarriko dira ibilbidean.

Hala egin ezean, antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko.

- San Pedroko ontziralekua (7,6. km) 10:35tan
- Jaizkibel (16. Km) 11:50tan
- Guadalupe (27,5.km), 13:30tan

14.-SARI BANAKETA

Helmugan bertan emango zaizkie sariak lehen iristen diren hiru gizonezko eta hiru emakumezkoek. Sarientzat, lasterketako denbora OFIZIALA hartuko da kontuan, hau da, helmugaratzeko ordena.

15.-HELMUGAKO ZERBITZUAK

POLTSEN JASOTZEA: Dortsala aurkeztuta, helmugako zerbitzu gunean.

DUTXA: Hondarribiko Arraun Elkartean.

16.-ASISTENTZIA ETA ASEGURUA

Mediku-asistentzia Gurutze Gorriak eskainiko du. Izen emandako lasterkariak erantzukizun zibil eta istripu aseguru bat izango dute.

Parte hartzaile bakoitza derrigortua dago mina hartzen duen beste parte hartzailea laguntzen.

17.-INGURUNEA ZAIINTZEA

Ulia eta Jaizkibel naturgune babestuak direnez, parte hartzaileei ingurunearekin ahalik eta ardura gehien izateko eskatzen zaizue. Bidetik atera gabe joanez, oihu edo zarata gehiegi egin gabe eta, batez ere, zaborrik sortu gabe. Horretarako, anoa postuetan dauden edukiontziak erabili behar dira eta hortik kanpo ez bota ezer ez. Arau hauek jarraitzen ez dituenak deskalifikatua izango da.

18.-GOMENDIOAK

1.-Ezohiko koloreko edo itxurako poltsa edo motxila erabiltzea gomendatzen da eta dortsal-zenbakia duen etiketa ikusgarri jartzea, helmugan jasotzeko momentuan ekipajea errez identifikatzeko.

2.-Edari postuetan (edalontziekin), hobe da segundo batzuk gelditzea. Horrela hobeto edan daiteke eta edalontzia postuan utzi ahal izango da.

3.-Esfortzuak ibilbidearen arabera dosifikatu behar dira. Hobe da garaiz erretiratzea ondoren damutzea baino.



FORTUNA
kirol elkarte
club deportivo

Araudi honetan jasotzen ez diren gainerako kontuetan aplikatu beharreko araudi osagarria Euskal Mendi Federazioarena izango da.